

<p>Ikasgaiaren izena Kodea. Ahozko komunikazioa</p>	<p>ECTS kredituak 6 ECTS Derrigorrezkoa</p>
<p>Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena LEHEN MAILA – SEI HILEKOA</p>	<p>Modalitatea Presentziala</p>
<p>- Oinarrizko kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Komunikazioaren historia ezagutzea, paradigma berriak ikastea eta unean uneko komunikazio egiturak identifikatzea, komunikazio mezuak balioesteko eta dagokien testuinguruan kokatzeko</p> <p>(Kodea)- Lanak eta proiektuak modu akademikoan aurkeztea eta azaltzea, zenbait ikasle eta irakasleren aurrean, dagozkien komunikazio baliabideak behar bezala eta eraginkortasunez erabiliz</p> <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Talde lana</p> <p>(Kodea)- Ikasten ikastea</p> <p>(Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p> <p>- Kompetentzia espezifikoak:</p> <p>(Kodea)- Eskuratutako informazioa egoki eta eraginkortasunez adieraztea, ahoz zein idatziz, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, bai ingelesez, komunikabide bakoitzaren ezaugarrietara egokituta</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak</p> <p>Komunikazio mezuak ikuspuntu kritikotik aztertzea</p> <p>Ahozko komunikazioaren estrategia komunikatibo egokienak erabiltzea, azalpenak eta aurkezpenak behar bezala egiteko</p> <p>Jendaurreko komunikazioaren arau nagusiak ezagutzea, berbaldi eraginkorra egituratzeko eta aurkezteko</p> <p>Adierazpenaren eta komunikazioaren oinarriak ezagutzea eta publiko espezializatuaren nahiz ez-espezializatuaren aurrean lanak aurkezteko erabiltzea</p> <p>Irratsaioak egitea, irratiko hizkuntza, hizkera, ahoskera, intonazioa eta erritmoa modu egokian erabilia</p> <p>Eskuratutako informazioa aztertzea, interpretatzea, berregituratzea eta adieraztea, hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), hizkuntzalaritza testual eta diskurtsiboaren irizpide orokorren arabera komunikazio egoera aintzat harturik</p> <p>Idatzizko kodea eta ahozko kodea bereiztea eta, horiek bereizita, ikus-entzunezkoen hizkera eta aurkezpen teknikak eta baliabideak aplikatzea, curriculumeko hizkuntza guztietan testu zuzenak sortzeko erregistro egokian</p>	
<p>Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena</p> <p>Ikasgai honek ikasleei ematen dizkien ezagutzak eta gaitasunak profil guztietarako dira beharrezkoak, oro har, eta, bereziki, Ikus-entzunezko komunikatzailea profilerako.</p>	

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko kompetentziekin duen harremana

MT1. Eskola magistralak
MT2. Kasuak aztertzea
MT3. Problema ebaztea

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak
JP3. Eskola praktikoak
JP4. Ahozko azalpenak
JP5. Tailerrak
JP6. Jarraipenerako tutoretzak
JP7. Mintegiak
JP9. Aurkezpenak
JP10. Simulazioak/Rol jokoak

Ez-presentzialak

JEP1. Ikasketa eta lan autonomoa
JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako kompetentziak ebaluatzeko sistema

EB1. Talde lanak
EB2. Banakako lanak
EB3. Azalpenak eta aurkezpenak
EB4. Banakako proba presentzialak
EB5. Prestakuntza jardueretara joatea eta horietan modu aktiboan parte hartzea
EB6. Ikaslearen auto-ebaluazioa eta baterako ebaluazioa

Edukien laburpena

- Ahozko testuak sortzeko estrategiak
 - Ahozko testuak sortzeko estrategien praktikak:
 - Ozen irakurtzea: zenbait genero (albistea, erreportajea)
 - Ahoskerarako arauak
 - Ereduen azterketa eta praktikak
 - Edukia eta forma
 - Berbaldiaren arintasuna eta trantsizioak egitea
 - Ahotsaren eta hitzik gabeko komunikazioaren erabilera
 - Zuzentasun gramatikala eta egokitasun lexikoa
 - Entzuleen interesa erakartzeko eta interesari eusteko estrategiak
 - Komunikazioaren alderdi emozionalak
 - Ozen irakurtzeko teknikak: erritmoa, isilaldia, arnasaldia, erlaxazioa, modulazioa, intonazioa, deklamazioa
 - Gorputz adierazpena eta dramatizazioa
 - Entzute aktiboa